

Aitor Perez 2026/3/14

DIKTADURA FRANKISTA (1959-1975)

Desarrollismo industrial eta bere ondorioak

7.1. Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketak

Nahiz eta 1950. hamarkadan nazioartean onartuak izatea lortu, irekitasunaren aldeko neurriak ez ziren nahikoa izan eta politika ekonomikoa aldatu beharra zegoen. 1960ko hamarkadan *desarrollismo* izenarekin ezagututako garaia hasi zen. Opus Deiko teknokratek bultzatutako Egonkortze eta Garapen Planek hazkunde ekonomikoa eta gizarte aldaketak bultzatu zituzten, zapalkuntza politikoa berdina izaten jarraitu zuen arren.

Ondorioak berehalakoak izan ziren etorkizunerako garapenerako oinarriak jari zirelako, baina ondorio negatiboak ere izan zituen. Kontsumoak eta produkzioak behera egin zuten, soldatak jaitsi egin ziren eta langabeziak gora egin zuten. Espainiar askok Europara emigratu zuten (Alemania, Suitza, Frantzia, etab), eta emigrazio hori turismoarekin egoera orekatzen zen (prezio merkeek erakarrita). Dena den, inportazioak ordaintzeko behar ziren dibisak eskuratu ziren, eta langabeziaren arazoa arintzea lortu zuten.

1964 eta 1973 urteen artean Garapen Planak hazkunde eta nazioartekotze prozesua osatu zuten. Azpiegitura-gabezia konpontzea, industrializazio-maila txikieneko eremuen alde egitea, produktu nazionala bultzatzea, guztientzako lana egotea, errenta hobeto banatzea eta munduko ekonomian gehiago sartzea ziren honen helburuak. Denak ez ziren bete, baina Espainiak ekonomia oparoaldi bat izan zuen, sektore nagusia industria izanik (automobilen eta etxeko tresna elektrikoaren sektoreengatik, batik bat). Garapen ekonomikoa hau beste faktore batzuekin batera gertatu zen: nazioartean hazkunde garaia eman zen, atzerritarren inbertsioak lan kostu txikia zela eta, turismoa eta atzerriara joandako emigranteek bidaltzen zituzten dibisak.

Faktore hauek ordainketa balantza orekatu zuten eta teknologia berriak eta kapital-ondasunak erosteko aukera eman zioten Espainiari. Herri lanak ere bultzatu ziren, gobernuak errepide, urtegi eta abarren eraikuntzari gogor ekin baitzion.

Hala ere, hazkunde "miragarri" hau desorekatua eta oso mugatua izan zen, etorkizunean eskualde eta sektoreen arteko desorekak zein arazo larriak sortuz.

60ko eta 70eko hamarkadetan Espainiako ekonomiak izan zuen hazkundeak aldaketak ekarri zituen gizartean. Landako gizarte tradizionala gizarte industrial, hiritar eta moderno bihurtu eta kontsumoan murgildu zen. Aldaketa soziokultural esanguratsuak gertatu ziren:

- Landa exodoa: industria garapena ez zen lurralde guztietan gauzatu, lurraldeen arteko desorekak ekarriz. Horren ondorioz, jende asko nekazaritza guneetatik (Galizia, Gaztela, Extremadura, Andaluzia) industria guncetara (Euskal Herria, Katalunia, Madril) edo Europara (Alemania, Suitza, Frantzia) joan ziren.
- Bizi mailaren igoera eta Espainia kontsumo gizartean sartzea: espainiarak dirua izaten hasi ziren kontsumo-ondasunak erosteko (hozkaileak, garbigailuak, telebistak, autoak, etab.), baita aisialdi eta kulturarekin lotutako jarduetarako ere. 1956an TVE ihesbide kultural bezala sortu zen.
- Zerbitzu publikoen hobekuntza: hezkuntza eta osasun arloan eman ziren batez ere. 14 urtera arteko derrigorrezko irakaskuntza jarri zen, ikasleen kopurua handituz. Bizi kalitatea eta bizi itzaropena hazi egin ziren baita. Horrez gain, 1966an Gizarte

Segurantzaren legea promulgatu zen.

- Pentsamolde aldaketak: ekonomia-garapenak ekarritako informazio, hezkuntza eta kulturaren zabalkundearen ondorioz, Espainiako gizartea zabalagoa, dinamikoagoa eta laikoagoa bihurtu zen. Emakumeak gizartean betetzen zuen funtzio ere aldatzen hasi zen pixkanaka, bizitza publikoan gehiago parte hartzen eta lan-merkatuan sartzen hasiz.